



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 15a

134. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-000143. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitio "terrorismoa sustatzen duten estatuen" zerrendatik atera dezan Kuba. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-24/MOC-00144. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik. Javier Arza Porras jaunak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00372. Galdera, ETArekin biktimei egingen zaizkien hurrengo omenaldietan Foruzaingoa egoteari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00376. Galdera, larrialdiko familia-harrerako programari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00454. Galdera, unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00455. Galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa iraungitzen den datari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00456. Galdera, Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukerak direla-eta INTIAk 2021ean egindako azterlanaren ondorioak gogoan hartuta egin diren ekintzei edo hartu diren ekimenei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00457. Galdera, eskola-jantokirako bekei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00458. Galdera, 2015eko urriaren 29an onetsi zen uren aprobetxamendurako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaria zertan den jakiteko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00459. Galdera, bingo-aretoetako eta joko-areto edo -lokaletako ordutegia ezberdina izateari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/PES-00460. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatze aldera Europako Inbertsio Bankuarekin egindako bilerei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00461. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00462. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko fasearen handitzearen azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00463. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00464. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00465. Galdera, Osasun Karpeta Pertsonaleko iradokizunen/erreklamazioen atalari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00466. Galdera, 2023ko abenduko aginte-koadroko "Zentro zentro hobetzeko arloak" atalari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00467. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloen" motei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00468. Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarilaren 15eko 1/2019 Foru Legean jasotzen diren zerbitzu-kartak abian jartzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00469. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00470. Galdera, Bruselako bulegoetako lanpostu batean euskara baloratzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2025eko lan egutegia (18. or.).
- 11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2025eko ordutegi ofiziala (19. or.).
- María Roncesvalles Solana Arana andreak foru parlamentari izateari uko egitea (20. or.).
- Javier Ollo Martínez jauna Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea (20. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-000143. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitio "terrorismoa sustatzen duten estatuen" zerrendatik atera dezan Kuba

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitio "terrorismoa sustatzen duten estatuen" zerrendatik atera dezan Kuba.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Estatu Batuek Kuba "terrorismoa sustatzen duen estatu" izendatzea zinikoa eta krudela da, eta nazioarteko zuzenbidea urratzen du argi eta garbi. Izendapen hori, zeina 2015ean erretiratu

baitzen Obamaren administrazioak ebaluazio zorrotza egin eta gero, berriz aplikatu zitzaion Kubari Trump lehendakari izan zen azken egunean, uhartearen aurka egin zuen gerra ekonomikoaren kanpainaren azken ekintza modura.

Izendapena krudela da Kubako herriaren sufrimendua maximizatzeko taxutu zelako, haren ekonomia ito, familiak lekualdatu eta, are, laguntza humanitarioaren fluxua murriztuz. NBEren adituen arabera, izendapenak "oinarrizko giza eskubideak ahuldu ditu, elikatzeko eskubidea, osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, eskubide ekonomiko eta sozialak, bizitzeko eskubidea eta garapenerako eskubidea barne".

Izendapena ilegala da, zeren, NBEren aditu juridikoen arabera, ahuldu egiten baititu "estatuen berdintasun subiranoaren printzipioa, estatuen barne-aferean esku hartzeko debekua eta nazioarteko ika-mikak modu baketsuan konpontzearen printzipioa". Izendapenak ekarri dituen zigor muturreko eta estraterritorialek, beraz, nazioarteko zuzenbidea urratzea dakarte inondik ere.

2024ko maiatzean, Estatu Batuekin terrorismoaren aurkako borrokan "erabat kolaboratzen ez duten" zerrendatik atera zuen azkenik Estatu Batuetako Estatu Departamentuak. Baina hori ez da aski. Kubak sufritzen jarraitzen du, nazioarteko ekonomiatik modu ziniko, krudel eta ilegalean baztertearen ondorioz.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen dio "terrorismoa sustatzen duen estatu" izendapena ken diezaion Kubari.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu Gobernuari premiatzen du Kuba "terrorismoa

sustatzen duen estatuen" zerrendatik ateratzearen aldeko neurriak har ditzan berehala.

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Eledunak: Carlos Guzmán Pérez, María Olga Chueca Chueca, Irati Jiménez Aragón, Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/MOC-00144. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Zuzenbide-estatuaren eta salbuespen-egoeraren arteko dileman, Europak denbora asko darama bigarrenaren alde egiten. Kontuan hartuta muturreko eskuinek gero eta eragin handiagoa daukatela bai Europako Parlamentuan bai Europar Batasuneko herrialdeetako gobernuetan, salbuespenaren

aldeko hautua areagotzen ari bide da. Horren adibide argia da Europako Parlamentuak onetsi duen Migrazioari eta Asiloari buruzko Ituna.

Nazioarteko zenbait organizaziok (Amnistia Internazionala, CEAR) nahiz Euskal Herriko zenbait ere (Ongi Etorri Errefuxiatuak, Mugak Zabalduz Karabana) salatzen dute itun horrek berekin dakarrela migratzaileen aurka jada baliatzen ari ziren jokabideak legezztatzea eta areagotzea. Kolektibo horiek salatu dute Migrazioari eta Asiloari buruzko Itunak giza eskubideak eta Europaren balioak urratzen dituela, eskuin muturraren agendak ezarritakoari jarraikiz. Hona itunak jasotzen dituen neurrietako batzuk:

- Asilo-eskubidea bertan behera geratzen da zenbait krisi-egoeratan.

- Asilo-eskatzaileen lege-laguntzarako eskubidea murrizten da.

- Egoera irregularrean dauden pertsonen barneratze-egunak handitzen ditu.

- Berehalako egozteak eta deportazioak errazten ditu eta, hartara, Frontex-en lana indartzen du.

- 6 urtetik gorako neska-mutikoen datu biometrikoak biltzen dira, aurpegiaren errekonozimendua eginarazten zaie eta deportatu egiten dira.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik.

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00372. Galdera, ETaren biktimei eginen zaizkien hurrengo omenaldietan Foruzaingoa egoteari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, ETaren biktimei eginen zaizkien hurrengo omenaldietan Foruzaingoa egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean erantzun dezan:

Foruzaingoa joanen al da ETaren biktimen hurrengo omenaldietara, biktimei 2024an gertatutako zabarkerien modukorik ez egiteko?

Iruñean, 2024ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/POR-00376. Galdera, larrialdiko familia-harrerako programari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, larrialdiko familia-harrerako programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Azken urteotan, baliabide ekonomikoak, materialak eta profesionalak jarri dira Familia harreraren programa indartzeko xedez. Familia harreraren modalitate desberdinen artean, bada urgentziazko harrera deiturikoa.

Zertan datza urgentziazko familia harrera eta zenbat familia daude horretarako prest gaur egun?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/PES-00454. Galdera, unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Unibertsitate-ikasketetarako beka eta laguntzetarako 2023ko aurrekontuan 3.540.600 euroekin hornitu zen partida, baina abenduaren 31n 2.875.245,62 eurokoa baino ez zen izan ordaintzeko obligazioa. Zergatik?

Arrazoiak zehaztea eskatzen dut, kasuan kasuko zenbatekoak eta onuradunak barne.

Iruñean, 2024ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00455. Galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa iraungitzen den datari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa iraungitzen den datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketaren muga-eguna, esleipenaren lizitazioan jasotzen ziren geiheneko luzapenak barne.

Iruñean, 2024ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00456. Galdera, Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukerak direla-eta INTIAk 2021ean egindako azterlanaren ondorioak gogoan hartuta egin diren ekintzei edo hartu diren ekimenei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukerak direla-eta INTIAk 2021ean egindako azterlanaren ondorioak gogoan hartuta egin diren ekintzei edo hartu diren ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

INTIAk Pirinioetako nekazaritza-elikagaietako aukeren gaineko azterlana egin zuen 2021ean. Zer ekintza edo ekimen berri egin da azterlan horretan oinarrituta?

Iruñean, 2024ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00457. Galdera, eskola-jantokirako bekei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, eskola-jantokirako bekei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Hezkuntza Departamentuak eskola-jantokirako beka dauzka. Beka horien funtzionamenduari buruzko informazioa jaso nahi dugu:

- Aldaketarik egin al da berriki beka horien funtzionamenduan?

- Familiek non eskatu behar dituzte beka?

- Oinarrizko zerbitzuek zer eginkizun dute prozesu horretan guztian?

- Zer dokumentazio aurkeztu behar dute?

- Nork eta nola baloratzen du jaso den dokumentazioa eta zer irizpide baliatzen ditu zehazteko zer familiari ematen zaion beka?

Iruñean, 2024ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00458. Galdera, 2015eko urriaren 29an onetsi zen uren aprobetxamendurako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaria zertan den jakiteko

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, 2015eko urriaren 29an onetsi zen uren aprobetxamendurako emakidaren ezaugarriak aldatzeko eskaria zertan den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 2015eko urriaren 29an onetsi zuen uren aprobetxamendurako emakida. Zertan da emakida horren ezaugarriak aldatzeko eskaria, emakidan sar dadin Sector XXVI-Ega 4 (Cárcar) izeneko eremu ureztagarria?

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00459. Galdera, bingo-aretoetako eta joko-areto edo -lokaletako ordutegia ezberdina izateari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, bingo-aretoetako eta joko-areto edo -lokaletako ordutegia ezberdina izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Onesteke dago Nafarroako Joko eta Apustuen Erregelamendua, lokalak, makinak eta ordutegiak arautuko dituen zaurgarriak babesteko eta adikzio-arriskua murrizteko.

Ixteko ordutegien tratamendua zergatik da ezberdina bingo-aretoetan eta joko-areto edo -lokaletan?

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/PES-00460. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko aldera Europako Inbertsio Bankuarekin egindako bilerei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko aldera Europako Inbertsio Bankuarekin egindako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat bilera egin ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko aldera Europako Inbertsio Bankuarekin? Adierazi bilera horiek zer egunetan eta non egin ziren.

Zein da bileretan parte hartu zutenen izena?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00461. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkeztu ditzake Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legean finantzaketa-sistema bat ezartzen da lurzati berrantolamenduko interes orokorreko obretarako nahiz eraldatu eta modernizatzeko interes orokorreko obretarako.

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Ubidearen 1. fasearen esparruko lurzati berrantolamenduak eta ureztalurren eraldatzeak eta modernizatzeko direla-eta:

1. Lurzati berrantolamenduek eta ureztalurren eraldatze eta modernizatzek zenbat hektarea hartu dituzte guztira?

2. Lurzati berrantolamenduko obrek zer kostu izan dute urteotan zehar (egitura berrian ustiatuei

zerbitzu emateko beharrezkoak diren landa-bideak, beharrezkotzat jotzen diren saneamenduak eta hustubideak; ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen diren neurri zuzentzaileetatik heldu direnak eta nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren xede den lurraldearen ingurunea hobetzeko komenigarritzat jotzen diren bestelako obrak)?

3. Zer kostu izan dute urteotan zehar sektoreko azpiegitura hidraulikoaren obrek?

4. Zer kostu izan dute urteotan zehar eremuko azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

5. Zer kostu izan dute urteotan zehar banaketako azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

6. Zer finantzaketa eduki du urteotan herri-lurretako barne-banaketak? Zer toki-entitatek eduki zuten finantzaketa hori?

7. Zer finantzaketa eduki du urteotan zehar lurren sistematizazioak? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

8. Herri-lurretako lurralde-hobekuntzek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

9. Energia berriztagarriko instalazioek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar arestiko galderetan adierazitako azpiegituretan energiaren kontsumoa murrizteko? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

10. Presiopeko ura lurzatian banatzea xede duten interes pribatuko obrek –interesdunek zuzenean egin beharrekoak– zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00462. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko fasearen handitzearen azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen lehenbiziko fasearen handitzearen azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legean finantzaketa-sistema bat ezartzen da lurzati berrantolamenduko interes orokorreko obretarako nahiz eraldatu eta modernizatzeko interes orokorreko obretarako.

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzeko lur-zatien berrantolamenduak eta ureztalurren eraldatzeak eta modernizatzeak direla-eta:

1. Lurzati berrantolamenduek eta ureztalurren eraldatze eta modernizatzek zenbat hektarea hartu dituzte guztira?

2. Lurzati berrantolamenduko obrek zer kostu izan dute urteotan zehar (egitura berrian ustiatuei

zerbitzu emateko beharrezkoak diren landa-bideak, beharrezkotzat jotzen diren saneamenduak eta hustubideak; ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen diren neurri zuzentzaileetatik heldu direnak eta nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren xede den lurraldearen ingurunea hobetzeko komenigarritzat jotzen diren bestelako obrak)?

3. Zer kostu izan dute urteotan zehar sektoreko azpiegitura hidraulikoaren obrek?

4. Zer kostu izan dute urteotan zehar eremuko azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

5. Zer kostu izan dute urteotan zehar banaketako azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

6. Herri-lurretako barne-hobekuntzek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

7. Zer finantzaketa izan du urteotan zehar lurren sistematizazioak? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

8. Herri-lurretako lurralde-hobekuntzek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortu zuten finantzaketa hori?

9. Energia berriztagarriko instalazioek zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar arestiko galderetan adierazitako azpiegituretan energiaren kontsumoa murrizteko? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

10. Presiopeko ura lurzatian banatzea xede duten interes pribatuko obrek –interesdunek zuzenean egin beharrekoek– zer finantzaketa eduki dute urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabe eduki zuten finantzaketa hori?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00463. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko azpiegituren finantzaketa-kostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nekazaritzako Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legean finantzaketa-sistema bat ezartzen da lurzati berrantolamenduko interes orokorreko obretarako nahiz eraldatu eta modernizatzeko interes orokorreko obretarako.

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Ubidearen 2. fasearen esparruko lur-zatien berrantolamenduak eta ureztalurren eraldatzeak eta modernizatzek direla-eta:

1. Lurzati berrantolamenduek eta ureztalurren eraldatze eta modernizatzek zenbat hektarea hartuko dituzte guztira?

2. Lurzati berrantolamenduko obrek zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar fase horretan (egitura berrian ustiategiei zerbitzu emateko beharrezkoak diren landa-bideak, beharrezkotzat jotzen diren saneamenduak eta hustubideak; ingu-

rumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen diren neurri zuzentzaileetatik heldu direnak eta nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren xede den lurraldearen ingurunea hobetzeko komenigarritzat jotzen diren bestelako obrak)?

3. Zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar sektoreko azpiegitura hidraulikoaren obrek?

4. Zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar eremuko azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe edukiko dute finantzaketa hori?

5. Zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar banaketako azpiegitura hidraulikoaren obrek? Zenbat onuradun edo lurjabe edukiko dute finantzaketa hori?

6. Herri-lurretako barne-banaketak zer kostu izanen du hamabost urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortuko dute finantzaketa hori?

7. Lurren sistematizazioak zer kostu izanen du hamabost urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabe edukiko dute finantzaketa hori?

8. Herri-lurretako lurralde-hobekuntzek zer kostu izanen dute hamabost urteotan zehar? Zenbat toki-entitatek lortuko dute finantzaketa hori?

9. Energia berriztagarriko instalazioek zer kostu izanen dute hurrengo 15 urteotan zehar arestiko galderetan adierazitako azpiegiturretan energiaren kontsumoa murrizteko? Zenbat onuradun edo lurjabe edukiko dute finantzaketa hori?

10. Presiopeko ura lurzatian banatzea xede duten interes pribatuko obrek –interesdunek zuzenean egin beharrekoek– zer kostu izanen dute hurrengo hamabost urteotan zehar? Zenbat onuradun edo lurjabe edukiko dute finantzaketa hori?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00464. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez –oin-orrian azaltzen denez, "erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak biltzen ditu"– eta horien arteko aldeak ulertze aldera, zer definizio ematen diozue kategoria horietako bakoitzari?

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00465. Galdera, Osasun Karpeta Pertsonaleko iradokizunen/erreklamazioen atalari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasun Karpeta Pertsonaleko iradokizunen/erreklamazioen atalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez –oin-orrian azaltzen denez, "erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak biltzen ditu"–, zer dela-eta Osasun Karpeta Pertsonaletik "Iradokizunak/erreklamazioak" sartzean ez dago halako kategoriarik eta nola edo nondik irits daiteke horietara?

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00466. Galdera, 2023ko abenduko aginte-koadroko "Zentroz zentro hobetzeko arloak" atalari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 2023ko abenduko aginte-koadroko "Zentroz zentro hobetzeko arloak" atalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 14. artikuluan ezartzen denaren babesean, honako informazio hau eskatzen du:

2023ko abenduko aginte-koadroko "Hobetzeko arloak zentroen arabera" 2023ko abenduan oinarritu osasun-laguntzan metatutako erreklamazio kopurua agertzen da (3.775): horietako bakoitzaren kategoria (erreklamazioak, salaketak, kexak, eragozpenak eta iradokizunak) taulak azaldutako arrazoi bakoitzerako.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00467. Galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloen" motei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, O-NOZeko Aginte-koadroaren "Hobetzeko arloen" motei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

O-NOZeko aginte-koadroaren "Hobetzeko arloak" atalari dagokionez, zer "hobetzeko arlo" sartzen dira "prestazioak eskuratzea" atalaren barruan, zeintzuk "hitzordua ematea" atalean eta zeintzuk "itxaron-zerrenda-hitzordua berandutzea" atalean?

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00468. Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarri-laren 15eko 1/2019 Foru Legean jasotzen diren zerbitzu-kartak abian jartzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarri-laren 15eko 1/2019 Foru Legean jasotzen diren zerbitzu-kartak abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismo kontseilari Rebeca Esnaola andreak, idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Eskubide Kulturalari buruzko 1/2019 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarrean ezartzen denez, "foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak zerbitzu-gutunak onetsiko ditu, eta bertan zehaztuko da zein diren prestazioak bere eskumen esparruetan, haien kalitatea hobetzeko eta herritarren beharrei, gogoei eta eskaerei hobeki erantzuteko, bai eta, azkenik, foru lege honetan aitortzen diren eskubide kulturalen erabilerarako irispidea bermatzeko ere".

Zer balorazio egiten du kontseilariak Nafarroako Eskubide Kulturalari buruzko 1/2019 Foru Legean jasotako zerbitzu-gutunak abian jartzeari buruz?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/PES-00469. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Barneko Zuzendaritza Nagusiak egin al du Suhiltzaileen Zerbitzuko lanpostuen balorazioari buruzko azterlana egiteko lizitazioa, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarriak ezarritako moduan?

2. Oraindik ez bada lizitaziorik egin, zergatik eta zer epetan egingen da?

3. Nafarroako Gobernuak uste al du beteko duela legez ezarria duen betebeharra, azterlan hori 2025eko martxoaren 14rako eginga izatekoa, orduan beteko baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzeko ekainaren 6ko 8/2024 Foru Legean ezarritako 9 hilabeteko epea?

4. Zergatik egin da lizitazio bat zerbitzu horretako lanpostu-zerrenda egiteko xedez?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00470. Galdera, Bruselako bulegoetako lanpostu batean euskara baloratzeari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Bruselako bulegoetako lanpostu batean euskara baloratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko azaroaren 5eko 224. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Memoria eta Bizikide-

tzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariaren urriaren 18ko 2/2024 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi ziren deialdia eta oinarri arautzaileak eta gastua baimendu zen honako beka honetarako: "Unibertsitateko titulazioa duen pertsona baten prestakuntza praktikorako beka, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuaren Bruselako Bulegoan aritzeko".

Deialdi horretan ingelesaren edo frantsesaren –EBko bi lan hizkuntzak– C1 mailako ezagutza eskatzen da eta balorazio-irizpideetan ezartzen denez, bi puntu emanen dira hizkuntza horietako beste bateko C1 mailako ezagutza egiaztatuz gero eta 1,5 puntu emanen dira gainerako hizkuntza ofizialen B2 maila egiaztatuz gero. Aldiz, euskara jakiteagatik bi puntu emanen dira, ingelesaren eta frantsesaren kasuan bezala.

Zer dela-eta ezarri du Gobernuak balorazio hori jarduera, aurreneko hiru hilabeteetan izan ezik, Bruselako bulegoetan gauzatuko duen lanpostu baterako?

Bekadunak euskaldunak artatzeko eginkizunik izanen al du? Zeintzuk eta non gauzatuko ditu?

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2025eko lan egutegia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako 2025erako lan egutegiaren proposamena, zeinarekin bat baitator Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2025eko aste bitarteko jaiegunen eta lanekoak ez diren egutegia. Honako hau da:

– Uztailaren 7a, 8a, 9a, 10a, 11 eta 14a: laneoak ez diren egunak, sanferminak direla-eta.

Azaroaren 29a: San Saturnino jaieguna.

– Lanekoak ez diren egunak: maiatzaren 2a eta abenduaren 24a, 26a eta 31.

Gainerako jaiegunak izanen dira Nafarroako Foru Komunitaterako oro har ezarritakoak (2024ko uztailaren 16ko 145. NAO). Hona:

– Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

– Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

– Apirilaren 17a: Ostegun Santua.

– Apirilaren 18a: Ostiral Santua.

– Apirilaren 21a: Pazko bigarrena.

– Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

– Uztailaren 25a: Santiago eguna.

– Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundea.

– Azaroaren 1a: Domu Santu eguna.

– Abenduaren 3a. San Frantzisko Xabierkoa.

– Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

– Abenduaren 8a: Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

– Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

2. Ohiko lanaldia gaur egun indarra duen berbera izanen da; hots, eguneko 7 ordu eta 30 minutukoa, astelehenetik ostiralera, salbu eta urtarrilaren 2a eta 3a, egun horietan lanaldia 6 ordu eta 30 minutukoa izanen baita.

Uztailan, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitartekoa. Betiere, egunean 6 ordu eta 30 minutuko lanaldia egin beharko da.

3. Laneko txandak gaur egun indarreko berberak izanen dira, langile guztiak bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

1) Goizeko txanda jarraitua.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekoa-ekin, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

2) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero, eta gehenez ere astean bi aldiz. Zerbitzuberuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedaldi bat barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09.15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa atera-

tzeko, Legebiltzarraren beharizanek horretarako modua emanaz gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraitua edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitzaturuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitzaturuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraitua egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena,

edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituen. Bukaera-ordua ezin izanen da 17:30etik haragokoa izan.

4. Urteko 1.560 lanorduren kopurua lortze alde-
ra, langileek erabilera libreko hiru ordu eta erdi hartu ahal izanen dituzte 2025. urtean zehar.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2025eko ordutegi ofiziala

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 9.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Erregistro elektronikoko dokumentuak aurkezteko bitarteko telematikoak erabiltzen ahalko dira, Legebiltzarraren egoitza elektronikokoan jarritako sarbidea dela medio, erregelamendu horretan araututako moduan.

Halaber, erregelamendu horren 12.2 artikulua ezartzen duenez, Erregistro elektronikokoan urteko egun guztietan eta egunaren hogeita lau orduetan aurkezteko ahalko dira dokumentuak, ezinbesteko arrazoi teknikoengatik gerta daitezkeen etenaldiak gorabehera. Etenaldien gaineko informazioa emanen da Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikokoan.

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2025eko lan egutegiaren proposamena, Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztua, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 118. artikulua ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Ezartzea honako hau izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2025. urterako:

– Oro har, astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 17:30era; eta ostiraletan, berriz, 09:00etatik 14:30era.

– Urtarrilaren 2an eta 3an, 9:00etatik 14:00etara.

– Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa.

– Erregistroaren arreta presentzialeko bulegoa itxita egonen da 2025eko maiatzaren 2an, uztailearen 7an, 8an, 9an, 10ean, 11n, eta 14an, abenduaren 24an, 26an eta 31n eta larunbatetan, igandeetan eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunetan.

2. Ondorio guztietarako baliogabe deklaratzeko 2025eko maiatzaren 2a, uztailearen 7a, 8a, 9a, 10a, 11 eta 14a eta abenduaren 24a, 26a eta 31. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbatak, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

María Roncesvalles Solana Arana andreak foru parlamentari izateari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak foru parlamentari izateari uko egite aldera aurkeztu duen idazkia dela-eta, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez uko egiten baitio foru parlamentari izaerari

—izaera hori apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen (68. zenbakiko NAO, 2023ko apirilaren 4koa), Geroa Bai koalizioaren hautagaitzaren barruan—.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Javier Ollo Martínez jauna Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 12an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Javier Ollo Martínez jaunak idazki bat aurkeztu du 2024ko azaroaren 11n, Geroa Bai talde parlamentarioan sartu dela jakinarazteko.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jakintzat ematea Javier Ollo Martínez jauna Geroa Bai talde parlamentarioan sartu izana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias